

Iceberg Programa



Prebentzioan esku
hartuko duten
irakasleentzako oinarriak

1. Egiten hasiko garen jarduerak ez dira guk ikasleei ematen diegun beste ikasgai bat. Garrantzitsua da **IKASLEEN ERANTZUNKIDETASUNA**, eta kontuan hartu behar ditugu haien motibazioak, sentimenduak eta emozioak, ikuspegia, interesak... Programaren garapenerako nahitaezko eragileak direla sentitu behar dute
2. Ez ezarri ikasleei jokabiderik, prozedurarik edo inposiziorik. Haien beren jarrera aldatzea nahi badugu, **BERAIEK ERABAKI BEHAR DUTE**. Beren gaitasunak, indarguneak, aukerak eta abar deskubritzen lagundu behar diegu, baina beren kabuz erabaki behar dute.
3. .Babes-faktoreak indartu eta arrisku-faktoreak urritu nahi baditugu, ardura indibidualari ardura soziala gehitu behar diogu, gazteetan, haien familian eta haien ingurunean dauden **ERRESILIENTZIA-GAITASUNAK** eta babes-gaitasunak sustatuz.
4. Irakasleek jorratu behar duten gaiari buruzko informazioa eduki behar dute, ebidentzia zientifikoan oinarrituriko informazioa. Horregatik, beharrezkoa da **IRAKASLEAK AURREZ TREBATZEA**.
5. Prebentziozko jardun horretan, funtsezkoa da **DINAMIKOA eta MALGUA** izatea eta errespetua, tolerantzia eta aniztasuna sustatzea.
6. Ez etsi helburuak ez badira epe laburrera lortzen. Aldaketak eta portaera-ereduak zailak dira lortzen, eta denbora behar dute ohiz kanpoko hori ohiko bihurtzeko.
7. Funtsezkoa da **AKTIBOKI PARTE HARTZEA FAMILIAK**, guraso elkarteak eta ingurune sozialak.

Informazio gehiagorako:

www.info@sasoiapreención.com